

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

497/2026 Erabakia, uztailaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzekari

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 74. artikuluan dioenez, "administrazio publikoek lanpostu zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabiliz egituratu behar dute beren antolamendua".

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 45.1 artikuluan ezartzen duenez, "Lanpostu zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile beharrianak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera".

Antolamendu egituren, eskumenen eta lanpostuei esleitutako eginkizunen berezko eboluzioak beharrezko egiten du lanpostu zerrenda era egokian moldatzea eta aldatzea eta, ondorioz, lanpostu bakoitzean jarduteko gaitasunak eta betekizunak ere bai.

Lanpostuak sortzeko ahalmena ematen duen aurrekontu gaitzekari dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen Lurralde Historikoaren 2026rako Aurrekontua Gauzatzekari buruzko abenduaren 16ko 20/2025 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren eta erakunde autonomoen aurrekontu plantillei buruzko 15.3 artikuluan:

"3. 2026ko ekitaldian, Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu haue-tan besterik ez dira onetsiko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da.

Hori oinarri hartuta, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 1334.003 ekonomia eta aurrekontu kontroleko administrari lanpostua amortizatzea eskatzen du, eta, haren kargura, 1137 ekonomia eta aurrekontu kontroleko teknikari lanpostuaren dotazio bat (1137.018) sortzea, biak ere Kontabilitate Zerbitzuari atxikiak.

Bestalde, sailetako egiturazko beharren bilakaeratik egiaztatu da egokia dela honako lanpostu hauen eskala aldatzea:

Arabako Lege eta Administrazio Erakundean, Lege eta Administrazio Erakundeko kide idazkari lanpostuaren (1082.001) eta Lege eta Administrazio Erakundeko kide lanpostuaren (1170.001, 1170.002 eta 1170.004) eskala aldatzen da. Bi egitura hauetara egon dira irekita: Administrazio Orokorren eskalako Teknikarien azpieskala (titulazio betekizuna: 240 Zuzenbideko Lizentzia/Gradua) eta Administrazio Bereziaren eskalako Teknikarien azpieskalako Goi Mailako Teknikarien klasea (titulazio betekizuna: 240 Zuzenbideko Lizentzia/Gradua). Aurrerantzean egitura hau izango dute: Administrazio Orokorren eskalako Teknikarien azpieskala (titulazio betekizuna: 240 Zuzenbideko Lizentzia/Gradua).

Ogasun Zuzendaritzan, Zuzeneko Zergen Zerbitzuan, 1107.001 Errenta eta Ondare Atalaren buru lanpostua aldatzen da. Lanpostua bi egituratara dago irekita gaur egun: alde batetik, Administrazio Orokorraren eskala, Teknikarien azpieskala, eta bestetik, Administrazio Bereziaren eskala, Zerbitzu Berezien azpieskala, Egiteko Berezien klasea, A1 titulazio azpitaldea. Aurrerantzean, egitura hau ere izango du: Administrazio Orokorraren eskala, Kudeatzaileen azpieskala, A2 titulazio azpitaldea.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuan, 1291 itzultzaile lanpostua aldatzen da (dotazioak: 1291.001, 1291.002, 1291.004, 1291.005, 1291.006 eta 1291.008). Lanpostu hori irekita zegoen bi egitura hauetara: batetik, Administrazio Bereziaren eskala, Zerbitzu Berezien azpieskala, Egiteko Berezien klasea eta, bestetik, Administrazio Bereziaren eskala, Teknikarien azpieskala, Goi Mailako Teknikarien klasea, (titulazio betekizuna: 223 Euskal Filologiako Lizentzia edo Euskal Ikasketetako Gradua edo baliokidea). Aurrerantzean egitura bakarra izango du: Administrazio Bereziaren eskala, Zerbitzu Berezien azpieskala, Egiteko Berezien klasea. Bestalde, 1290 hizkuntza normalizazioko teknikari lanpostuak (1290.001 eta 1290.002) eskala aldatzen du. Egitura hau du: Administrazio Bereziaren eskala, Goi Mailako Teknikarien azpieskala, 223 Euskal Filologiako Lizentzia edo Euskal Ikasketetako Gradua edo baliokidea betekizuna. Aurrerantzean, egitura hau izango du: Administrazio Bereziaren eskala, Zerbitzu Berezien azpieskala, Egiteko Berezien klasea. Aldaketa hori aplikatuko zaie, halaber, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako Euskararen Foru Zerbitzuari atxikitako hizkuntza normalizazioko teknikariaren 1290.003 eta 1290.004 dotazioei.

Lanpostu baten eskalaren irekiera mugatzearen ondorioz, geratzen den eskala ez badator bat titularrarenarekin, titular horrek aldatutako lanpostuan jarraitu ahal izango du, izendatua izan zen eskala aldatu gabe.

Natura Ingurunearen Zuzendaritzan, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuan, 1048.001 Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko buru lanpostua aldatzen da. Lanpostu hori betetzeko sistema lehiaketa da, eta hornidura hori Arabako Foru Aldundira irekita dago. Lanpostua betetzeko sistema hori Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileei ere irekitzen zaie.

Azkenik, Kultura Zuzendaritzan, Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuko 1501.002 agiritegi eta liburutegietako mandatarari lanpostuaren ezagutza espezifikoaren baldintza aldatzen da, B gidabaimenaren betekizuna sartzeko.

Alegazioen izapidea bete da eta negoziazioa gauzatu da sindikatueta ordezkariekin, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua betez, eta kontuan hartu da Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak xedatutakoa.

Nahitaezko txostenak ikusita, horrenbestez, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrendaren aldaketa onestea, ondoren xedatutakoaren arabera:

- I. eranskinean jasotzen diren lanpostuak amortizatzea.
- II. eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.
- III. eranskinean jasotzen diren lanpostuak aldatzea.

Eranskin horietan xedatutakoa alde batera utzi gabe, lanpostu baten eskalaren irekiera mugatzearen ondorioz, geratzen den eskala ez badator bat titularrarenarekin, titular horrek aldatutako lanpostuan jarraitu ahal izango du, izendatua izan zen eskala aldatu gabe.

Bigarrena. Gobernu Kontseiluak onetsi eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak erabaki honek, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertzeko errekurtsua, ebazpena eman duen erakundearen aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezarritakoarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,

Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

KOLDO MIKEL RUILOPE GONZÁLEZ



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

I. ERANSKINA

LANPOSTUEN ZERRENDA

LANPOSTUAK KENTZEA

KODEA	IZENA	DED. ERREG.			LANPOSTUEN JARDUTEKO BALDINTZAK				ORDAINSARIAK			LANTOKI HERRIA	
		MOTA	BZT.	EZOR.	JARD. JARD.	BET.	ATXIKIPENA		BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O	BERARIAZKO OSAGARRIA		
							ADMI.	TALDEA					
													ESKALA
							AZPIESKALAE	TITULUAK					BEH
20 Saila OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK													
20.2 Zuzendaritza FINANTZAK ETA AURREKONTUAK													
20.2.02 Zerbitzua KONTABILITATEA													
1334.003	EKONOMIA ETA AURREKONTU KONTROLEKO ADMINISTRARIA	EB	B			L	AFA	C 1	12	2	19	28.149,00	VITORIA-GASTEIZ
												Lanpostu Totala:	1

Literalen taula, ALHAOn (15sk.) argitaratutakoa, 2026ko Otsailaren 4an.

PAG.- 1

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava II. ERANSKINA LANPOSTUEN ZERRENDA LANPOSTUAK SORTZEA															
KODEA	IZENA	MOTA		DED.ERREG.		LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK						ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA	
		BZT.	EZOR	JARD.	JARD.	BET.	ATXIKIPENA		ESKALA	IKASKETA	H.E.	BERARIAZKO	D.O		BERARIAZKO
						ERA.	ADM.	TALDEA	AZPIESKALA/ESP	TITULUAK	KODEA	EZAGUPENAK	MAILA	OSAGARRIA	BEH
20 Saila OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK															
20.2 Zuzendaritza FINANTZAK ETA AURREKONTUAK															
20.2.02 Zerbitzua KONTABILITATEA															
1137.018	EKONOMIA ETA AURREKONTU KONTROLEKO TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 1	11	230	3	25	38.339,25	VITORIA-GASTEIZ	Lanpostu Totala: 1		
							211	230	01/01/2026						
Literalen taula, ALHAOn (15sk.) argitaratutakoa, 2026ko Otsailaren 4an.															
PAG.- 1															

Arabako Foru Aldundia

Diputación Foral de Álava

III. ERANSKINA

LANPOSTUEN ZERRENDA

ALDATU GABE

KODEA	IZENA	MOTA			DED.ERREG.			LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK					ORDAINSARIAK			LANTOKI HERRIA	
		BZT.	EZOR	PRES	JARD.	JARD.	ERA.	ATXIKIPENA		ESKALA	IKASKETA	H.E.	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O	BERARIAZKO OSAGARRIA		BEH
								ADM.	TALDEA								
15 Saila EKONOMIA GARAPENARENA ETA JASANGARRITASUNA																	
15.3 Zuzendaritza NATURA INGURUNEA																	
15.3.02 Zerbitzua INGURUMEN KALITATEA																	
1048.001	INGURUMEN KALITEAREN ZERBITZUAREN BURUA	B	B			5	L	AFA	A 1	2	251	4	27	59.359,95	VITORIA-GASTEIZ		
20 Saila OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK																	
20.0.02 Zerbitzua ARABAKO LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEA																	
1082.001	LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEKO KIDE IDAZKARIA	B	B				L	AFA	A 1	11	240	4	26	39.312,15	VITORIA-GASTEIZ		
1170.001	LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEKO KIDEA	EB	B				L	AFA	A 1	11	240	4	25	39.104,55	VITORIA-GASTEIZ		
1170.002	LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEKO KIDEA	EB	B				L	AFA	A 1	11	240	4	25	39.104,55	VITORIA-GASTEIZ		
1170.004	LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEKO KIDEA	EB	B				L	AFA	A 1	11	240	4	25	39.104,55	VITORIA-GASTEIZ		
20.1 Zuzendaritza OGASUNA																	
20.1.05 Zerbitzua ZUZENEKO ZERGAK																	
20.1.05.2 Atala PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN ETA ONDAREAREN GAINEKO ZERGAK																	
1107.001	ERRENTA ETA ONDARE ATALAREN BURUA	B	B			3	L	AFA	A 1	11		3	26	54.216,00	VITORIA-GASTEIZ		
												01/01/2024					
Literalen taula, ALHAOn (15sk.) argitaratutakoa, 2026ko Otsailaren 4an.																	
														PAG.- 1			

Arabako Foru Aldundia

Diputación Foral de Álava

III. ERANSKINA

LANPOSTUEN ZERRENDA

ALDATU GABE

KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.			BET.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK						ORDAINSARIAK			LANTOKI HERRIA	
			BZT.	EZOR	PRES		ATXIKIPENA		ESKALA	IKASKETA	H.E.	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O	BERARIAZKO	BEH		
							ADM.	TALDEA									
																	TITULUAK
25 Saia BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA																	
25.2 Zuzendaritza EUSKARA ETA GOBERNU IREKIA																	
25.2.01 Zerbitzua EUSKARA																	
1290.003	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO	EB	B		L	AFA	A 1	211	223	4	TP	25.910,25	21		VITORIA-GASTEIZ		
	TEKNIKARIA																
1290.004	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO	EB	B		L	AFA	A 1	211	223	4	TP	25.910,25	21		VITORIA-GASTEIZ		
	TEKNIKARIA																
30 Saia ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOA																	
30.2 Zuzendaritza FUNTZIO PUBLIKOA																	
30.2.04 Zerbitzua EUSKARA																	
1290.001	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO	EB	B		L	AFA	A 1	211	223	4	TP	25.910,25	21		VITORIA-GASTEIZ		
	TEKNIKARIA																
1290.002	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO	EB	B		L	AFA	A 1	211	223	4	TP	25.910,25	21		VITORIA-GASTEIZ		
	TEKNIKARIA																
1291.001	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	221	223	4	TP	29.049,60	23		VITORIA-GASTEIZ		
1291.002	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	211	223	4	TP	29.049,60	23		VITORIA-GASTEIZ		
1291.004	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	211	223	4	TP	29.049,60	23		VITORIA-GASTEIZ		
1291.005	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	211	223	4	TP	29.049,60	23		VITORIA-GASTEIZ		
1291.006	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	211	223	4	TP	29.049,60	23		VITORIA-GASTEIZ		
1291.008	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	221	223	4	TP	29.049,60	23		VITORIA-GASTEIZ		

Literalen taula, ALHAOn (15sk.) argitaratutakoa, 2026ko Otsailaren 4an.

PAG.- 2

Arabako Foru Aldundia

Diputación Foral de Álava

III. ERANSKINA

LANPOSTUEN ZERRENDA

ALDATUTA

KODEA	IZENA	MOTA			DED.ERREG.		LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK						ORDAINSARIAK			LANTOKI HERRIA	
		BZT.	EZOR	PRES	JARD.	JARD.	ERA.	ATXIKIPENA		ESKALA	IKASKETA	H.E.	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O	BERARIAZKO OSAGARRIA		BEH
								ADM.	TALDEA								
25 Saila BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA																	
25.2 Zuzendaritza EUSKARA ETA GOBERNU IREKIA																	
25.2.01 Zerbitzua EUSKARA																	
1290.003	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		21	25.910,25	VITORIA-GASTEIZ		
	TEKNIKARIA										TP						
1290.004	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		21	25.910,25	VITORIA-GASTEIZ		
	TEKNIKARIA										TP						
30 Saila ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOA																	
30.2 Zuzendaritza FUNTZIO PUBLIKOA																	
30.2.04 Zerbitzua EUSKARA																	
1290.001	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		21	25.910,25	VITORIA-GASTEIZ		
	TEKNIKARIA										TP						
1290.002	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		21	25.910,25	VITORIA-GASTEIZ		
	TEKNIKARIA										TP						
1291.001	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		23	29.049,60	VITORIA-GASTEIZ		
											TP						
1291.002	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		23	29.049,60	VITORIA-GASTEIZ		
											TP						
1291.004	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		23	29.049,60	VITORIA-GASTEIZ		
											TP						
1291.005	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		23	29.049,60	VITORIA-GASTEIZ		
											TP						
1291.006	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		23	29.049,60	VITORIA-GASTEIZ		
											TP						
1291.008	ITZULTZAILEA	EB	B		L	AFA	A 1	221			4		23	29.049,60	VITORIA-GASTEIZ		
											TP						

Literalen taula, ALHAOn (15sk.) argitaratutakoa, 2026ko Otsailaren 4an.

PAG.- 5

